

DEKRETUA / DECRETO

Espediente zk./ Expediente nº: 1944/2024

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak/ Subvenciones por Concurrencia Competitiva

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Galdakaoko Udal Musika-eskolako ikasleentzako laguntzen deialdia 2024/2025

Udalbatzak, 2011ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Galdakaoko Musika- eskolan matrikulatutako ikasleei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoak hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Jendaurrean jartzeko epea igaro eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, alegazioak behin betiko bihurtu ziren, eta testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2011ko ekainaren 17an (116. zk.).

Alkatetzaren otsailaren 13ko 2020-0310 Dekretuaren bidez, 2020-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen, 2020ko ekainaren 30eko 1229 Dekretuek aldatua. 2020ko abenduaren 16ko 2361, 2022ko otsailaren 23ko 408 eta 2023ko urtarrilaren 31ko 0201 zenbakidunak.

Deialdia egin duen arloko teknikariak txostena egin zuen 2024ko martxoaren 26an

26.3264.480.04 partidan kreditu nahikoa atxikitzeko Kontu-hartzailearen txostena dago, 26.645,00 eurokoa.

Convocatoria ayudas al alumnado de la Escuela de Música Municipal de Galdakao 2024/2025

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de abril de 2011, acordó aprobar inicialmente las Bases reguladoras específicas para la concesión de subvenciones destinadas a las alumnas y los alumnos que estén matriculados en la escuela de música de Galdakao. Transcurrido el periodo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, éstas se elevaron a definitivas, y su texto íntegro fue publicado en el “Boletín Oficial de Bizkaia” número 116 de 17 de junio de 2011.

Mediante Decreto de Alcaldía número 2020-0310 de 13 de febrero, se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones (PES) para el periodo 2020-2023, modificado por los Decretos núm.1229, de 30 de junio de 2020, núm. 2361 de 16 de diciembre de 2020, núm 408 de 23 de febrero de 2022 y núm 0201 de 31 de enero de 2023.

La Técnica del área convocante emite informe de fecha 26 de marzo de 2024.

Consta informe de Intervención de retención de crédito suficiente en la partida 26.3264.480.04 por importe igual a 26.645,00 euros.



Galdakako Udalak diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 20. artikulua xedatzen duenez, diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko prozedura ofizioz hasten da, Alkatetzak onartutako deialdiaren bidez. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratu beharko da.

El artículo 20 de la Ordenanza General Reguladora de la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao dispone que el procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva se inicia de oficio mediante convocatoria aprobada por la Alcaldía, que deberá ser publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la web del Ayuntamiento.

2024(e)ko apirilaren 12(a)(e)an aldeko fiskalizazio-txostena ikusita./ Visto el informe de fiscalización favorable con fecha de 12 de abril de 2024.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

Lehenengoa.- Galdakako Musika Jardueren Udaltegian 2024-2025 ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleei diru-laguntzak emateko deialdia onartzea, honen eranskinean dagoen baldintzen arabera

Primero.- Aprobar la Convocatoria para la concesión de subvenciones al alumnado matriculado en el Centro Municipal de Actividades Musicales de Galdakao en el curso académico 2024-2025, en los términos que figuran en el anexo de esta resolución.

Bigarrena.- Musika-eskolan ikasteko matrikulatuta dauden ikasleentzako diru-laguntza 26.645 eurokoa izango da gehienez, eta 26.3264.480.04 aurrekontu-partidari egotziko zaio.

Segundo.- La cuantía total destinada a subvencionar al alumnado que esté matriculado en dicha escuela de música municipal asciende a un máximo de 26.645 euros que se imputa a la partida presupuestaria 26.3264.480.04

Hirugarrena.- Deialdiaren laburpena argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bidez.

Tercero.- Publicar un extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia por conducto de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Era berean, deialdiaren testu osoa argitaratuko da Udalaren iragarki-taulan eta webgunean.

Asimismo, publicar en el Tablón de anuncios y en la web del Ayuntamiento el texto íntegro de la convocatoria.

Laugarrena.- Diru-laguntzen Oinarri Nazionalari bidaltzea, deialdiari buruzko informazioaz gain, emandako emakidari edo emakidei buruzko informazioa, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

Cuarto.- Remitir a la Base Nacional de Subvenciones, además de la información sobre la convocatoria, información sobre la concesión o concesiones recaídas en los términos establecidos en la normativa aplicable.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**





**GALDAKAOKO UDAL MUSIKA-ESKOLAN
IKASKETAK EGITEN ARI DIREN
IKASLEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIA (2024-2025
IKASTURTEA)**

**CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE
SUBVENCIONES DESTINADAS AL
ALUMNADO QUE CURSE ESTUDIOS EN LA
ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE
GALDAKAO (CURSO 2024-2025)**

1.- Oinarri arautzaileak.

Galdakao Udalbatzak, 2011ko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen udal musika eskolan ikasten ari diren ikasleentzako diru-laguntzak ematea arautzen duten berariazko Oinarriei hasierako onespena ematea. Jendaurreko erakustaldia iraganda alegaziorik aurkezten ez zenez, behin betikotzat jo ziren, eta testu osoa 2011ko ekainaren 17ko 116. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Oinarri horiek eta deialdi hau Udalaren web-orrian kontsulta daitezke:

<https://www.galdakao.eus/musika-eskola>

1º.- Bases Reguladoras.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de abril de 2011, acordó aprobar inicialmente las Bases reguladoras específicas para la concesión de subvenciones destinadas a las alumnas y los alumnos que cursen estudios en la escuela municipal de música de Galdakao. El texto íntegro fue publicado en el “Boletín Oficial de Bizkaia” número 116 de 17 de junio de 2011.

Las citadas Bases y la presente convocatoria, podrán consultarse en la página web del Ayuntamiento

<https://www.galdakao.eus/escuela-musica>

2.- Diru-laguntza ematearen helburua eta xedea.

Diru-laguntzaren helburua da ikasleek zerbitzua jasotzeko ordaindu behar duten prezio publikoaren zati bat konpentsatzea, lehentasunezko puntu gisa, ikasleen familiaren egoera ekonomikoa eta bizikidetzta-unitateko kide kopurua aintzat hartuz, Oinarri arautzaileen baldintzak betez.

2º.- Objeto y finalidad de la concesión de la subvención.

La subvención concedida tendrá por objeto compensar el pago de parte del precio público que el alumnado debe abonar para la percepción del servicio tomando en consideración, entre otros y como puntos prioritarios, la situación económica de las familias del alumnado y el número de miembros de la unidad convivencial, en los términos de las correspondientes Bases reguladoras.

3.- Gehienezko zenbatekoa guztira eta diru-laguntzak egozten zaizkien aurrekontu-kredituak.

Galdakao Udal musika eskolako ikasleei 2024-2025 ikasturteran diruz laguntzeko zenbatekoa gehienez 25.645,00 eurokoa da, eta 21.3264.480.04 aurrekontu-partidari egoziko zaio.

3º.- Cuantía total máxima y créditos presupuestarios a los que se imputan las subvenciones.

La cuantía total destinada a subvencionar al alumnado de la escuela de música municipal de Galdakao para el curso 2024-2025 asciende a un máximo de 25.645,00 € y se imputa a la partida presupuestaria 21.3264.480.04.





4.- Diru-laguntza eskatzeko betekizunak eta onartutako eskabideak baloratzeko irizpideak.

Deialdi honen 1. atalean azaldu diren Oinarri arautzaileetan aurreikusitakoak.

5.- Emateko araubidea.

Emakida norgehiagoka erregimenean egingo da.

Laguntza hauek jasotzeko eskubideak ikaslearen familiek duten egoera ekonomikoa eta bizikidetzak unitateko kide kopurua hartuko ditu lehentasunezko puntu gisa, deialdi honen 1. atalean adierazitako diru-laguntza arautzen duten Oinarrietan ezarritako irizpideen arabera.

6.- Eskabideen aurkezpena.

- **Epea:** Diru-laguntzak lortzeko eskabideak aurkezteko epea 2024-2025 ikasturterako ezarritako matrikulazio-epetan aurkeztu beharko dira (maiatza 2tik 24ra).

- **Lekua:** Musika-eskolaren web gunean, <https://www.galdakao.eus/musika-eskola>. Bertatik aurkeztu beharko da eskabidea, eskuragarri dagoen dirulaguntzaren eskabide-eredua betez.

Eskabidea onuradunak edo haren ordezkariak sinatu beharko du, eta eskabidearekin batera eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Hala eskatzen dutenentzat, laguntza teknikoa emango da Urreta kaleko 21-An dagoen musika-eskolan.

Arreta-ordutegia:

*astelehen eta ostegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

*astearte, asteazken eta ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara.

4º.- Requisitos para solicitar la subvención y Criterios de valoración de las solicitudes admitidas.

Los previstos en las Bases Reguladoras señaladas en el apartado 1º de la presente Convocatoria.

5º.- Régimen de concesión.

La concesión se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

El derecho a la percepción de estas ayudas considerará como puntos prioritarios la situación económica de las familias del alumnado y el número de miembros de la unidad convivencial, conforme a los criterios objetivos fijados en las Bases reguladoras de la subvención.

6º.- Presentación de solicitudes.

- **Plazo:** El plazo de presentación de las solicitudes de subvenciones, será el correspondiente al periodo de matriculación fijado para el curso escolar 2024-2025, esto es, del 2 al 24 de mayo, ambos inclusive.

- **Lugar:** En la página web de la escuela de música <https://www.galdakao.eus/escuela-musica> desde donde deberá presentarse la solicitud, cumplimentando el modelo de solicitud de subvención disponible en la página.

La solicitud deberá ir suscrita por el/la beneficiario/a o persona que lo/a represente, y se acompañará a la misma la documentación requerida.

Para quienes lo requieran, se prestará asistencia técnica en la escuela de música sita en Urreta Kalea 21-A.

Horario de atención:

* lunes y jueves de 11:00 a 14:00 y de 16:00 a 19:00.

* martes, miércoles y viernes de 9:00 a 14:00.





7.- Egiazta daitekeen dokumentazioa.

- a) Erroldatze indibidualaren edo kolektiboaren ziurtagiria.
- b) Familia-unitatearen diru-sarrerak, PFEZari atxikiak.
- c) GSINen gizarte-prestazio publikoak.
- d) Langabezia-prestazioak.
- e) DSBEn prestazioak
- f) Desgaitasun-maila.

Eskaeran dagokion laukia markatuko da, baldin eta Udalak datu horiek egiaztatzearen aurka badago. Aurka egonez gero, interesdunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

8.-Aurkeztu beharreko agiriak

- a) Noizbehinkako diru-sarrerak dituzten pertsonentzat: diru-sarrera irregularrei buruzko zinpeko aitorpena.
- b) Eskatzailea familia-burua bada eta bananduta edo dibortziatuta badago: erantsi epaia eta hitzarmen arautzailea, edo, hala badagokio, behin-behineko edo aurretiazko neurrien epaia.
- c) Adingabeen laguntzengatik diru-sarreraren egiaztatzea: mantenu-pentsioak...

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo eskatutako baldintzak betetzen ez dituela ikusten bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela akats formalak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.

9.- Instrukziorako eta ebazteko organo eskumenduna

Instrukzioa egiteko organo eskuduna: Deialdiaz arduratzen den arloa.
Emakidatzeko proposamena egiteko organo eskuduna: Gaiaren arabera dagokion Informazio-Batzordea.

7º.- Documentación verificable.

- a) Certificado de empadronamiento individual o colectivo.
- b) Ingresos de la unidad familiar sujetos a IRPF.
- c) Prestaciones sociales públicas del INSS.
- d) Prestaciones de desempleo.
- e) Prestaciones de RGI
- f) Grado de discapacidad.

Se marcará en la solicitud la casilla correspondiente si se opone a que el Ayuntamiento verifique estos datos. En caso de oposición, deberá el interesado aportar la documentación correspondiente.

8ª.- Documentación a aportar.

- a) Para aquellas personas con ingresos esporádicos: declaración jurada sobre ingresos irregulares.
- b) Si el solicitante es cabeza de familia y está separado/a o divorciado/a: Adjuntar la sentencia y convenio regulador, o en su caso Sentencia de medidas provisionales o previas.
- c) Justificante por ingresos por ayudas de menores: pensiones por alimentos...

Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos, se requerirá a la persona interesada para que en el plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

9º.- Órganos competentes para la instrucción resolución.

Órgano competente para la instrucción: el área responsable de la convocatoria
Órgano competente para realizar la propuesta de concesión: La comisión informativa que por materia corresponda.





Ebazteko organo eskuduna: Alkatea, eskuordezteko ahalmenari kalterik egin gabe.

Órgano competente para resolver: la Alcaldía sin perjuicio de las facultades de delegación.

10.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Diru-laguntzak emakidatzeko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, eskabideak aurkeztekoa amaitu denetik hasita bi hilabetekoa izango da.

Gehieneko epemugan ebazpenik jakinarazi ez balitz, emakidaren eskabidea ezetsizat joko da administrazioaren isiltasunagatik.

11.- Jakinarazteko bideak.

Ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio edo, hala behar balitz, legezko ordezkariari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta jarraitzen diren artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

12.- Baliabideak.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bizkaiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan.

ALKATEA

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

10º.- Plazo de resolución y notificación.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de subvenciones será de dos meses contados a partir de la finalización de presentación de solicitudes.

Si en el vencimiento del plazo máximo no se hubiera notificado la resolución, se entenderá desestimada la solicitud de la concesión por silencio administrativo.

11º.- Medios de notificación.

La resolución será notificada a cada solicitante o, en su caso, al representante legal, de acuerdo con lo previsto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

12º.- Recursos.

Contra la resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse Recurso Potestativo de Reposición ante el órgano que resuelva, en el plazo de 1 mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de la misma, o bien directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bizkaia que corresponda, a tenor de lo establecido en los artículos 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de 2 meses contados, igualmente, a partir del día siguiente a la recepción de la notificación.

ALCALDE

DOCUMENTO FIRMADO ELECTRONICAMENTE

